

ZENBAT BURU

Amaia Urzelai

ERREPORTAJEA

Herriko lorategien  
zaintza

# BARREN

1999ko urriaren 29a  
VII. urtea - 296. zkia

E L G O I B A R  
« .011



UDALETXETIK

EAJ, EA eta EH

alderdiek

governatuko dute

Udala

GEHIGARRIA


KiliBARREN

KULTURA

Gipuzkoako

Bertsolari Txapelketa

Elgoibarren



## Elgoibarko lorazaintza

"Lore bortxatuak ez du usain onik" (Esaera zaharra)



# Gozatu udaz urte osoan zehar

**Natureas**

72 902 123 456  
NaturGasy Euskadiko gasa

> Sociedad de Gas  
de Euskadi, s.a.

Grupo EVE



AMAIA URZELAI

## Harremarsh eta bakarrik

Txakur bat erosiko dot?

- Txakur bat?

- Bai, beldurra ematen dit bakarrik biziko naizela pentsatzeak, eta bakarrik ez sentitzeko, txakur bat erosiko nabala begitandu jatan behin.

Eta... telefonoa hartu eta deituz gero zer?

- Animo!

- Ez, ez, ez. Ez dot uste nerekin berba egiteko gogorik izango dabanik. Ezer nahi balu, dagoeneko deituko luke. Itxoiten geldituko naiz. Bai, itxoiten, itxoiten deituko banio?

Zenbatetan hartu duzu horrelako elkarrizketan parte? Hamaika aldiz seguruen! Bakarrik egoteko hainbeste modu daude... Batzuetan, eguneko momentu gozoenak, hutsik dagoen etxeko egongelan, sofan etzanda, bakar-bakarrik pasatzen ditugunak izaten dira. Momentu hoiietan sentitzen den lasaitasuna, mundiala izaten da. Beste batzutan aldiz, etxera heldu eta ixiltasuna baino ez dagoela ikusteak, atzeraka egiten digu eta soinua ateratzen duen gailu bati, 'On' egiten diogu. Gailuaren izena, telebista izan daiteke, eta isladatzen duten irudiek, bakarrik gaudela, farrez leher arazi gaitzakete. Beharbada, beste telebista baten aurrean, programa horri berari begira, beste norbait, negarrez egon daiteke. Begiak telebistan jarrita baditu ere, burua beste nonbait duela, arazoak dituelako.

Arazo honégatik negarrez aritzea, lagun bantentzat, lerdokeria izan daiteke (lagunak deitzen diegun hatzuk, arazo gehien dauzkaten pertsonak eurak direla uste baitute). Gurea baino arazo handiagoa esititzen ez dela pentsatzea, egia da. Baina gure egia baino ez: egia, bakoitzak mundua ikusteko daukan era delako. Batentzako egia denak ez dauka bestearentzako zertan izan, gauzak beste iskina batetik ikustean, ezberdin ikus-

ten direlako. Hori gertatzean, ez dadila inor ume moko bat bezala zera esaten hasi: "nik esaten doten bezala dia gauzak! Zu konfunditxuta zaoz! Tontua zera, ze gauzak ez dia hola!". Bestearen txokotxotik gauzak nola diren ikusten saiatu. Zu, bera, guztiok irtengo gara irabazle! Zu, gauza berriak dakizkizula oberatuz: bera, hutsik dagoen egongelan lasai eta gustora egonez.

Bakarrik, egongela hutsean, negarrari ekin diezaiokezu, inork maite ez zaituela uste duzualako, besarkatuko zaituen inor topatuko ez duzualako... Pentsa dezakezu, zorigaitzeko zarela, bikotez beteriko gizartean bikoterik gabe egoteagatik, eta patua horrela idatzirik dagoela pentsatzeak, gehiago goibel zaitzake.

Bikotea izateak, ez du esan nahi bakarrik ez egotea. Apostu egingo nuke, bikotea daukan jende askok sentitzen duen bakardadea, bikoterik gabe dagoen askorena baino handiagoa dela. Ia ziur nago, hutsune bat betetzeko harremanaren bila irtetzen denak, bere helburua lortzeko zailtasunak izango dituenaz.

Bati-bat= Hamaika!!! Etxetik kalera, banutik kanpora... guztia da gauza bera. Bakardadea gora eta behera, ingurukoekin dauzkagun harremanak, eta izan nahi genitzakeenak... Mario Benedettiren poesian, makina bat poemek daukate "Soledades" izena. Testua nola biribildu ez, dakidala nago. Seguruen, leno hauetaraino heldu zaretenoi, nahiko ulergarria egingo zaizue gertatzen zaidana. Gainera, ez daukat gai honen irtenbidea. Sentitzen dut, baina ez daukat. Bakoitzak pentsa dezala irtenbide onena zein den. Nik, goiko telefonotren inguruan dabilenari, zera esan nahi diot: bi aukera dituzula uste dut: arrazonatu gabe sentituz bizitzea da hata eta sentitu gabe arrazonatzea bestea.. Pisu gehieneko aukera zein den erabaki, eta deitu behar diozun ala ez jakingo duzu.

Atal batt ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraitasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
15 943 74 41 12  
Ru blizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea..com  
Hel bide nformati koa:  
www.ihardu n.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Jon Eugii, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Maitane Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M, Angeles Ortuoste.
KOLARORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Attor Argarate, Idoia Arozena, Aitzoi Arriota, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, 3manol Larrañaga, Aintzane larrea, Ion Lotola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Pell Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Iarrariaga
1NPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgaibarko Udalak, Euska  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



**ani** *gizarte-ekintza  
obra social*

**44 DANOBAT**

**GOITI**  
GRUPO DANOBAT

## Kazetari ordezkapena hilabeterako

Hilabete honetan kazetari berria izango dugu BARRENen. Izart ere, Jon Eugi elgoibartarra izango da Trati Agirreazaldegik lagatako hutsunea beteko duena. Jon Eugi kazetaritzan lizentziatua da eta zorterik onena opa diogu esperientzia berri honetan. Iratiri, berriz, bere ordenadorearen aurrean berriz ere noiz ikusiko desiatzen gaudela esan nahi diogu. Musu handi bat eta animo!

BARREN astekaria

## Iarlan Mendaro urbanistikoki

**E**txe berriak, eskola berria, poligo-  
no industrialia, Kilimoi eta Deba  
ibaia biderapenak, oinezkoentzako  
pasabideak... Gauza onak egin dire-  
nik, ezin uka genezake. Zer kritikatu-  
rik ere badela uste dugu, ordea.

Santa Ana edo Santa Kruz bezela-  
ko atsedenlekuetan funtsezkoak dira  
zakarrontziak jendearengan ingurugi-  
roarekiko errespetua bultzatu nahi ba-  
dugu.

Mendaroko argi sare publikoari  
dagokionean, gehiegizkoa iruditzen  
zaigu (sarritan desaprobetxatua) eta  
gainera nagusitzen den farola mota  
(txupa-txups formakoa) galera ener-  
getiko nabarmenen erantzule dela us-  
te dugu.

Azken puntu bat aipatzearen, Ki-  
limoi errekaen egoera salatu nahiko  
genuke. Erreka izatetik, kanala izatera  
pasa zen eta gainera inork ez du ezer  
egiten bertako bizitzaren gutxienezko  
enekuperazio bat bultzatzeko. Nor-  
baitek horren erantzunkizuna izango  
du ba...

**Mendaroko Plataforrna Aktiboa**

## ElIar-GasIsijz ainv[istlren knorruan

**F**kainaren 23an, Elgoibarko Gazte  
Asanbladako hiru kide, Kutxan  
giltzapetu eta kateatu ginen, Eibar-  
Gasteiz autopistaren aurka gaudelako.

Gure polizia kuttuna hiru kideak  
handik ateratzera hurbildu zenean, sa-  
rreerako kristala apurtu zuten. Irainduz  
eta jipoituz atera, eta Eibarko komi-  
saldegian 5 orduz jipoitzen eta irain-  
tzen jarraitu zuten.

Orain, hiru kideei, 483.000 pta.ko  
isuna ordainarazi nahi dio **Estatu**  
espaniarrak. Horregatik, guztiok anirna-  
tu nahi zaituztegu, hilaren 30ean,  
Gaztetxean dirua biltzeko antolatu du-  
gu kontzertura.

Polizia 3 kideei emandako jipoi  
zaratatsuak eta oihukatu zituzten irai-  
nak, zinta batean grabatuta daude. Sa-  
laketa jarri diegu, eta irabazteko auke-  
rak, guztiak gureak dira!

Kontzertura arte!

**Elgoibarko Gazte Asanblada**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.

- Urasandi kaleko bizilagun batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu. "Herritik Urasandi auzora joateko zubia-**ren bukaeran zebra pasabide bat jarri beharko litzatekela uste dut.** Izan ere, zubiaren bukaeratik hi modu daude Urasandi auzora igotzeko. Aukera bat eskaileretatik igotzea da, bide hor-tatik joateko ez dago arazorik, lehendik zebra pasabide bat ba-dago-eta. Beste bidetik joateko, berriz, **aparkatutako autoek bidea oztopatzen dute eta alde batetik pareko etxeetara pa-sa ahal izateko, errepidera sartu behar da nahi ta nahi ez.** Kotxeak goi partetik ziztu bizian jaisten direnez, egunen batean desgraziaren bat pasako da. Umeek eta pertsona nagusiek batez ere, arriskuan jartzen dituzte euren biziak. Zebra pasabide bat ja-rriz gero arazoa konponduko litzateke".



- **San Roke auzoko bizilagun bat bertako umeek jolaspar-kerik ez dutela-eta kexatzera etorri zaigu argazki eta guz-ti.** "San Rokeko umiak ahaztuta daozela uste dot. Izan ere, le-hen genitxun kolunpixuak (argazkian ikusten den jolasparke-koak) duela 5 urte kendu zitxuzten. Egoera txarrian zaozen, eta oso ondo in zabela uste dot, baina 5 urte denbora asko da, eta oindiok parkia hutsik dao. Gainera burdinazko hesixa zulauta dao. **Bestalde, jende nagusi asko ibiltzen da inguru hontan, eta petrilian jarri biharrarian egokixaua beitzantzen jata banku batzuk ipintzia**".



# BAI, ESARI



**Jose Rejo**

IMHko zuzendaria

Elgoibarko Makina Erreminta Institutuak, D ereduko ira-kaskuntza eskainiko du 2000. urteko irailetik aurrera. Eki-mena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin izandako harremanen ondorioa da. Harreman horiei esker, mekani-ka arloko ikasleek irakaskuntzaren munduan Iehenengo al-diz, klaseak euskaraz jasotzeko aukera izango dute. **Jose Rejo IMHko zuzendari gerentearekin** hitz egin dugu au-rrerapausu honi buruz gehiago jakin nahian.

**-Mekanika irakaskuntzan lenenengo aldiz, D eredua sartzea lortu duzue. Zer arlotan ikasi ahal izango da euskaraz?** Goi Mailako Heziketa zikloetan ematen ditu-gun 3 espezializateetan, hau da, Proiektu Mekanikoen Ga-rapena, Mekanizazio Bidezko Produktzioa eta Industri Eki-poen Mantenimentuan. Eta baita Erdi Mailako Heziketa Ziklokoan ere, Mekanizazioan, alegia.

**-Zein da lorpen honen esanahia? Eta zein izan da lor-tzeko prozesua?**

Aurrerapauso garrantzitsua da ikasleak aukeratzen duen hizkuntzan klaseak eman ahal izatea, egungo gizartearen egoerari erantzunez. Honetarako Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailarekin hammanetan ibili gara behinbetiko inplantazioa lortu ahal izateko aukera aztertzen.

**-Mekanika sailean D eredua sartzeko non aurkitu di-tuzue zailtasunik handienak?** Material didaktikoa zailta-sun handia azaltzen duen puntuetako bat da, oso material gutxi baitago. Bestalde, D eredua ezartzeak instalazioen, ekipamenduaren eta irakasleen analisisa dakar, honek *guz-tiak* suposatzen duenarekin.

**-Erabaki hau hartzeko presiorik jaso al duzue?** Biga-rren hezkuntzatik IMHra datozen ikasleak proportzio han-di batean D eredutik datoz, beraz, iaiztik badatoz hau eska-tzen. Gizarte taldeak ere egon dira D eredua IMHn inplan-tatzearen alde, eta hau gure ikuspuntutik guztiz logikoa iruditzen zaigu.

## IrTondo TABEZ\JA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan,

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

111-a1•11-11•111



## 4ITURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behea. 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK PINTAKETA

# Herflo clateg zaintza

*Udazkenaren etorrerarekin batera zuhaitzek hostoak galzten dituzte, eta Elgoibar inguratzen duten mendiak eta basoak marroi kolorezjazten dira. Zuhaitzen kimaketa edo podaketa ere garai honetan egiten da eta herriak itxura berezla izaten du. Hori dela eta, zuhaitzen kimaketa egitearen arrazoiak azaltzea ideia ona izan zitekeela iruditu zaigu. Bide batez, herriko lorategien egoera eta zaintzari buruzko hainbat datu jaso ditugu.*

brigadako langileek urtero kimatzen edo podatzen dituzte herriko

zuhaitzak garai honetan. Bertan dauden 7 langileek hilabete oso baterako Iana izaten dute zuhaitz guztiak mendean hartzeko. Belarra mozten ere nahikoa lan izaten dute, Altzolan hasi eta Aitz Bizkarre-rainoko bazter guztiak euren ardurapean baitaude. Gainera, kalean egin beharreko lorazaintza lanak basoan baino zailagoak dira, oztopo gehiago dago-eta. Brigadakoen tartean, Fraisoron eta Derion lorazaintza ikastaroetan parte hartu duten langileak daude. Langile hauek eta Jose Mari Oruesagasti hirigintzako arduradunak azaldu dizkigute heniko lorategien zaintzari buruzko go-ra behera guztiak.

## maketa edo podaketa

Hasteko kimaketaren inguruan hitz egin dugu, eta honako azalpenak eman dizkigute: "kimaketak eitzeko funtsezko arrazoirik ez dao. Akaso, askok pentsauko dabe kaliak hostoz ez garbitzeko eta lana errazteko modu bat dala, baina hori ondorio bat besterik ez da. Izan ere, zuhaitzak henietako txokoak apaintzeko erabiltzen hasi zianian sortu zan ohiturara hau, zuhaitzei itxura politxak emateko. Elgoibarren, berriz, negua hotza dalako eta eguzki izpizen argitxasunari eta berotasunari tokixa lagatzeko kimatzen dia arbolak". Harri-garria badimdi ere, kimaketa zuhaitzentzat kaltegarria izan daitekela azaldu digute, "arbolak kimaketarekin indarbeni-



*Eguzki izpizen argitasunari eta berotasunari tokixa lagatzeko kimatzen dira arbolak, baina berez, ez dago funtsezko arrazoirik.*

txu ingo diala pentsau leike, baina usteak erdi ustel, arbolak zauritxu itxen dia, eta zaurixetatik gaixotasunak sartu. Bizidunak dia, eta pertsonak moduan erantzuten dabe. Kimaketak egin ostian, produktu berezi batekin estaltzen ditzugu z,aurixak". Zuhaitz motaren arabera kimaketa egiteko 3 modu daude. *Alibustre* en familiako zuhaitzek osatzen dute lehen podaketa modua (P.M. Urruzuno kalean). Bigarren zuhaitz mota *Piatano* ak dira (Plaza Txikian, San Lorentzon, Sigman, San Roken...). Azkenik, *Arkazia* k daude (Karkizanon, Artetxe behean, Plaza Haundian...). "Plaza Handiko platanuak esaterako, urte askuan kimau dia eta oso egoera kaskarrian daoz. 50 urte inguru izango ditzue, baina 120 ditzuztela ematen dau". Hala ere, zuhaitz guztiak ezin dira kimatu, "batzuri ez jakue historik jausten, eta ezin dia kimatu. Hauek, iluntasun handia ematen dabe daozen tokixetan. Santa Ana kaleko *Tilo* ak ere, kimatzeko zailak dia. Kimaketa ongi onartzen ez daben trren, egitera behartuta gaoz, oso azkar hazten baitia, 15 metro gorantz eta 8 zabaleran, eta etxetako leixuetatik sartzen dia adanak".

## Ilargiaren menpe dagoen lana

Ahal dutenean hasten direla kimaketekin esan digute, baina ilargiaren arabera egin beharreko lana dela azaldu digute, "guztiok dakigun moduan, ilargixak itsasgora eta itsasbeherak kontrolatzen ditxu, ura erakarri ala aldentzen dau. Arbolek daken zukua edo "sabria" (guretzako odola litzatekeena) urez osatuta dao, eta ilargixak zuku hori emkartzen dau ilargi betea dauanian. Honegatik ez da komeni ilargi betiak kimaketarik eixia, arbolia odolusteko arriskua dao-eta. Bestalde, arbolek hotzetik eta izoztietatik babesteko sustraixetan gordetzen dabe zukua negu sa-soian. Kimaketarako momenturik aprobe-nazaten da. Ilargiaren menpe lan itxelco astirik ez dakagunez, gurxienez, negu partian itxia errespetatzen dou".

## auruneak baldintzatutako lorategiak

Elgoibar mendiz eta berdegunez inguratutako herria da, baina lorategi gutxi daude, hau da, jendeak atsedean eta amasa hartzeko heniaren erdialdean dauden berdegune gutxi daude. Lorategi bat zer den definitzea zaila da, gaur egun errotondek ere lorategiak dirudite-eta, baina guk Leku-Ederren dagoen lorategia hartu dugu irizpidez. Jose Mari Oruesagastiren iritziz, "Elgoibar eremu aldapatsuan eraikita dago eta orografia maldatsu horrek dauka lorategi handiagoak eta gehiago ezin jarri izanaren arrazoia. Erxebizitzak elkarrengandik hurbilegi daude, eta horetik ere badu eraginik. Izan ere, aspaldiko urbanizazio planifikazio batean oinarrituz eraikita daude, eta lorategiak jartzeko ezin da etxerik bota".

## Ilorategi proiektu berriak

Aurrera begira lorategi berriak izango ditugula herrian aurreratu digu Oruesagas-



*Herriko lorategietan zuhaitz eta landareak jartzeko aurre phuzifikazio bat jarraitzen da. Bestalde, Madalan 3000 m2ko lorategia egiteko proiektuti dago.*

tik, "azken urte hauetan egin diren etxebizitzak berriek eta Madala inguruan egingo direnek lorategi gehiago izateko aukera escainiko digute. Madalan esateraka, berdegune bat baino gehiago izango da, baita 3.000 m2-ko lorategi bat ere. Fiabol zelai baten erdia baino piska bat handiagoa izango da, eta gutxi gorabehera Gaztetxea dagoen tokian egongo da. Altzolako elizaren ondoko lurretan ere, beste lorategi bat jartzeko asmoa dugu". Lorategien zaintzari buruz honakoa esan digu: "lorategiak hobeto zaindu daitezke agian, baina lan handia dago eta

zantzas aparte, beste zeregin mordoak dituzte, eta lorazaintzan behar beharrezko lanak bakarrik egiten dituzte, batez ere, mozketa eta mantenimentua. Kontutan hartu behar da 1.200 arbolatik gora daudela".

## rrez planifikatutako lorategiak

Duela 1.0 urtetik hona, herriko lorategietan zuhaitzak eta landareak jartzeko aurre planifikazio bat jarraitzen dutela aipatu digu Oruesagastik, "edozein

zuhaitz ekarri aurretik dituen ezau-garriak jakitea komeni da; asko eta azkar hasten den, edozein klima jasateko gai den etab: Elizako arkupeen ondoan, bolatokian adibidez, *Sekuoia* bat dago. Kalifornia aldean hasten dira zuhaitzok, eta izugarriko garaiera izatera iristen dira. Etxeen ondoan haziz gero,



*Elgoibarrek duen inguru maldatsua izatea da lorategi Izandia,goak eta gehiago ez jartzearen arrazoi nagusia.*

dauzkagun baliabideekin ezin gara denera heldu. Lan puntualetarako jende gehiago kontratatu izan dugu, baina denbora guztian lorazaintzara dedikatuko lirakeen 4 edo 5 profesional beharko genituzke. Tamalez, gaur egun brigadan dauden 7 langileek lora-

arriskutsuak izaten dira. Beraz, non jarriko ditugun ere ongi aztertu beharreko kontua izaten da. Orain dela gutxi, aspal-di landatutako zuhaitz batzuk bota egin behar izan ditugu autoentzako leku arriskutsuan zeudela-eta. faktore asko izan behar dira kontutan".

SEME-ALABEN ARMENEN ORDENA AUKERATZEKO ESKURIDEA  
ONARTU DU ESPAINIAKO KONGRESUAK

# Zer irudnzen zon annron abizsra Mnuan allizerann auvrin ipintzeko eskubidea?




**ALBERTO ZELAIA**  
28 urte, mekanikoa

Ondo, primeran. Gizonana ipintzia lehengo gauzia da. Bakoitzak ikusiko dau zer in bere umiekin. Baina nik neuriei ipintzeko, ez naban inungo pegarik jarriko.



**FLORENTINO ORTEGA**  
56 urte, langilea

Nik nahiago dut lehengoa. Halere, nahi duenak jartzea dauka, ondo iruditzen zait. Baina ni, nire seme-alabek lehen abizena aitarena eramatearen aldekoa naiz.



**KRISTINA BERGUA**  
26 urte, administraria

Ondo, amak ekartzen badau mundura semia edo alabia, aukera hori eukitzia ondo ikusten dot. Ni aukera hori ematiaren alde nao. Gero, bikotian artian erabaki hiharko dabe.



**JAVIER CAMARA**  
38 urte, delineantea

Ondo. Lehengo araudia itxia-goa zen, hala ezarrita zegoen eta ezin zen aldatu. Aukera egoteak, gainera, ez du inor honetam behutzen. Lehen ez zegoen aukera ematen du.



**MARIBI GONZALEZ**  
45 urte, saltzailea

Primeran. Ez du gizonaren kontua bakarrik izan behar. Nire alabarentzat ere, bihar-ko egunean, nere abizena gordetzeko aukera eukitzea oso polita iruditzen zait.




**ITZIAR ETHABE**  
46 urte, farmazeutikoa

Oso ondo topatzen dot, bikotia ados egonez gero. Positiboa da emakumiontzat, gainera. Bakoitzak erabakiko dau zer in, baina aukera ematia ondo beitzentzen jata.




## ESKERTZA

*1999ko urriaren 19an, 75 urte zituela hil zen  
ANGEL ASTIGARRAGA GARNIENDIAREN sendiak,  
bihotzez, ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*




## I. URTEURRENA

*1998ko urriaren 28an, 80 urte zituela hzl zen  
IESUS BILBAO OLEAREN oroimenez  
URTEURRENEKO MEZA izango da Parrokian  
larunbatean, hilak 30, arratsaideko 19:00etan.  
Joaten zaretanoi eskerrak alde z aurretik.*







# Osa unean adituak

GAIA:

## ENBOLAÆ

Enbolia gaitza, zain bat enbolo batengatik oztopatua gelditzen denean gertatzen da. Oztopo hau aire burbuila batek (injezizio batek edo sueroa azkarregi jartzeak eragin dezake), zain batetik desatxekitutako odol tronbo batek edo gantzak (grasa) sortaraz dezake. Enbolismoak, miokardio infartu, burmuineko infartu eta beste zenbait gaisotasun hilkorren arrazoi izan daitezke.

Enbolo bat, odol zirkulazioan kutsatutako zeluletan, zirkulazioan sartzen diren minbizi zeluletan edota odol korrontean barneratzen diren gantz zeluletan sor daiteke. Enbolismoa, enbolo bat arteria batean kokatzen denean sortzen den oztopaketa da. Enboloak, ia gehienetan, gorputzeko edozein ataletan eratzen diren odol koaguloak dira. Beren jatorrizko lekutik bereizten direnean, odol korrontek garraiatzen ditu eta zirkulazio sistematik bidaiatzen dute euren tamainak ibiltzea eragozten ez dien bitartean. Hodi estu batera iristen direnean, oztopatu egiten dute eta odolaren ohiko jarioa eragozten dute.

### Sintomak

Enboioaren lekuaren arabera aldatu egiten dira eta oztopatutako lekuan gertatzen den odol jario ezak sortzen ditu. Pertsonak mina, ahultasuna, azkurea edo hotza sentitzen du.

1<sup>7</sup> Bihotzaren eskumako aldean eratzen diren koaguloek birika enboliak ekartzen dituzte eta, ezker aldean agertzen direnek, aldiz, giltzurrunan, burmuinari, esteei edo begiei eragiten die.

### MASAJISTAK

Victoria Iraegi

Pl. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **943 74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda (Dragnostikoak Insaren eta Kinesiologiaren bidez)

..... San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Surya Belardenda (Yoga, reiki eta masaia ikastaro eta tratamenduak)

..... San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiametria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59;**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

hiaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

### PSIKOLOGOAK

Nare psikologoak (Helduak, haurrak eta bikoteak)

..... Isasi 17, 1-B Eibar • Tel: **943 20 05 95**

**[Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra]**

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARREIVeko 943 74 41 12ra

- **Eusko**

## **Jauriaritzak 'Netto' merkatalgunea eraikitzea onartu du**

Eusko Saurularitzako Etxebizitza eta Ingurugiro sailak, Lerungo industrialdean kokatuko den 'Netto' merkatalgunean egingo den jarduera onartu du. Aurretik Osakidetza (1999-6-15) eta Elgoibarko Udalaren (1999-7-6) baietza jaso ostean, Esther Larrailaga buru duen sailaren oniritzia heldu da. Hori bai, onarpenarekin batera, enpresak zuzendu beharreko zenbait gauzaren aipamena egingen du txostenak. Ondoren, Udaleko teknikoeak bisita egingo dute egin beharreko zuzenketak egin diren jakitera eta hala bada, lizentzia emango zaio. Netto merkatalgurea, Unialco supermerkatu etxe erraldoiko partaidea, azaroko azken egunetan irekitzeko asmoa daukate.

- **Gasteiz-Maltzaga autopistak Elgoibarko lur zati txiki bat hartuko du**

Gasteiz-Maltzaga autopistak Elgoibarko udalerrira ere hartuko du bere baitan, nahiz eta oso eremu txikian izan. Hain zuzen ere, 61 metro karratuko lur zati txiki bat da, Maltzaga auzoaren inguruetan kokatuta dagoena. Lur zati hori Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgoibarko Udalarari erosi zion pasa den uztailean, au topi staren eraikuntza zaren proiektuan sartzeko. Eremu horren mugak ondokoak dira: iparraldean A-8 autopista, ekialdean Zabalako parajea, mendebaldean Zelaiakoa eta hegoaldean berriz ere A-8 autopista. Egun Gasteiz Maltzaga autopistaren eraikitze lanetan ari dira eta 36 hilabete epean bukatuta egon behar du obrak.

## **Igerilekuko sabaiaren konponketa laster hukatutn egotea azporm**

Kirol Patronatuak ez du oraindik irekieraren data zehatzik eman

Polikiroldegiko sabaiaren konponketa lanak rnarxta onean doaz eta aurki igerileku handiari dago-kion sabaia amaituta egotea espero da. Dagoeneko teiltuaren erdia baino gehiago eginda dago eta bukatu bezain pronto ireki ko da. Hala ere, Udal Kirol Patronatutik ez digute irekieraren data zehatzik eman, enpresak duela astebete bukatu

zuela esan baitzien eta oraindik ez baitute amaitu. Igerileku txikiaren sabaia, berriz, handia irekita dagoela konponduko da. Lan hauek nahi baino gehiago luzatu dira, hasieran egin beharreko obra uste zena baino handiagoa izan delako, teiltuaren egitura gaizki



*Igerileku handiko sabaiaren erdia baino gehiago konponduta dagojadanik, eta bukatu bezain azkar irekiko dute.*

zegoela-eta. Eta ondoren, beste enpresa bat hartu behar izan da, hasieran egin behar zuenak atzera egin zuelako, lan-crile falta zuela esanez. Udal Kirol Patronatuak ez du aztertu oraindik atzerepenarengatik kalitetutako abonatuendeko erabakirik hartuko ote duen.

- **Urruzunon autoak trenhide azpitik joateko proiektua onartu du Eusko Trenek**

Udaleko ordezkariak Roberto Otxandio, *Eusko Treneko* zuzendariarekin bildu ziren Karakolaren konponketa proiektua erakusteko. Proiektu bonen asnaoa, tren geltokiaren alboko Karakol zubia egoera onean jartzea eta berritzea da. Horretarako, *Eusko Tren* enpresari iritzi tekniko eskatu zaio eta baita ere ea eurak gastuen zati bat ordaintzeko prest egongo ote ziren galdetu zaie. Bilbon izandako bilera berean, baietza eman zitzaion Melitonen, matacleroaren parean, zuloa egiteko proiektuari, autoak trenbide azpitik pasatzeko. Ondorioz, obrak nork burutuko dituen erahakitzeko lehiaketa egingo da aurki.

- **Ikastolako umeen irteera errazteko hainbat erabaki hartu dira**

Ikastolako bidean eta Ermuaran Bide kalean, Urruzunoko etxeen eraikuntza eta San Lorentzoko errekaen desbideraketa lanak direla-eta, dagoen obra pilaketa aztertze bileran egin dute. Alkatetzak deituta, Urruzunoko etxeen enpresa eraikitzaileko zuzendaria, errekaen desbideraketaren arduraduna eta Alfonso GullI6, Ikastolako zuzendaria bildu ziren, lanen egungo egoera aztertu eta erabakiak hartzeko. Horrela, eragozpenak gutxitze aldera, zenbait erabaki hartu zituzten: Ikastolako umeen irteera aurretik eta ondoren, IO minutuz, makina guztiak geiditza. Une horietan, Udaltzairgoa bertan egotea obrak gelditzeko aginduarekin. Bukatzeko, peatoi bide bat antolatze aukera ere aztertu zuten.

## Urasandike bidegurutzean konponketa lanak egin ditu Udalak

Udalak Urasandiko bidearen konponketa lanak egin ditu. Bertan, 50 zentimetroko zabalerako sakan-gune edo badena egin du, altueraren sakonera ia 10 zentimetro jeitsiz. Azkenik, Udalak hartu ditu bere gain lan hauek, Gipuzkoako Foru Aldunditik baimena jaso eta gero. Hainbat hila-bete igaro eta gero, alkateak egin-dako gestioen ostean, Foru Aldundiak ez zuenez egiten, Udalaren esku gelditu da zuzenketa lan hau. *Ipintza* enpresa arduratu da proiektu hau gauzatzearaz eta 1,5 miloi pezetako kostua eduki du.



## Nathalia abeslaria ETB 2ko "Esta es mi gente" saioan agertu da



Nathalia abeslari elgoibartarra, Patricia Gaztañagak aurkeztuen duen ETB 2ko "Esta es mi gente" saioan aritu zen kantuan astelehenean. Elgoibarko abeslari famatuak Paloma San Basilioren "Vida" abestia kantatu zuen bertan. Saioa kantariei buruzkoa izan zen eta Nathaliarekin batera beste 5 abeslari agertu ziren. Elgoibartarrak adierazi digunez, "beste esperientzia bat gehiago izan da". Argaz-

kian, Nathalia saioko aurkezlearekin, Patricia Gaztatiagarekin, ageri da.

## • Itxaropena abesbalzak abeslari berrialt nahi ditu

Itxaropena abesbatza partaide berzien bila dabil. Gaur egun 30 bat kide dituen abesbatza honek kantari gazteak hartu nahi ditu. Horretarako, ez dago solfoea jakin beharrik, bertan abesteko nahikoa dela musika gustuko izatea adierazi digute. Talde hau astelehenean eta asteazkenean biltzen da gaueko 9etan Udaletxeko batzar aretoan entsaiuetarako eta beraz, interesa daukana hara joan daiteke.

## • Agertu gabe segitzen du aurreko asteazkenean desagertutako gUon elgoibartarrak

Atzo hilak 28, Ertzaintzak, artean, desagertutako gizon elgoibartarrazen bila ziharduen. J. M. C. izeneko gizona, 60 tutekoa, joan zen asteko asteazkenean desagertu zen. Ez zela ageri ikusita, senitartekoez ostegunean denuntzia jarri zuten eta orduan ekin zioten bitaketari. Ertzaintzan azuldu digutenez, azken egunetan, toki ezberdinetan ikusi dutela esanez deiak jaso dituzte, Donostian, Bergaran, Beasainen edo Zegaman esaterako, baina osteguna, hilak 28 arteko bilaketa lanek ez zuten fruiturik eman.

## • Ikasie ohien noten kuartilak gordeta daude Santa Klara komentuan

Santa Klarako komentuan, bertan ikasitako ikasleen noten kuartilak gordeta daude. Gutxigorabehera 1960 hamarkada aldean Santa Klaran ikasketak egin zituzten pertsonen notak daude gordeta. Pertsona batek, duela gutxi hara joan eta bere notak jasotzean, Maria Jesus monjarekin hitzegin zuen eta hark esan zionez, pena litzateke horiek jaso gabe lagatzearen ondorioz galtzea. Beraz, norbaitek bere umetako notak zeintzuk ziren ezagutu nahi baditu, Santa Klara komentura jotzea besterik ez du.



## Elgoibarko Ikastolako umeez "Eurodisney"ra joateko saria irabazi dute

Elgoibarko Ikastolako ikasle talde batek Osasunkumeren "Mundua aldatzeko abentura" lehiaketa irabazi zuen 50 ikas-tetxetako 123 gelen artean. Saria Paris-en kokatuta dagoen Eurodisney-ra joatea izan zen. Ikastolako ikasleek, irailaren 11 eta 13a bitartean egin zuten bidaia Argazkian, ikasle taldea ageri da, 3 irakasleekin lagundurik, Frantziako hiriburuko Eurodisney-n bertan aterata.

# EAJ, EA eta EH alderdiek Udall gobernurako akortltoa sinatze duas legegintzaldi honetaraku

Akordio honen bidez, hiru alderdi abertzaleek gobernatuko dute Udala

I lgoibarko hiru alderdi abertzaleek, *EAJ-k, Euskal Herriari Ii-Irrok-ek* eta *Eusko Alkartasunak*, legegintzaldi honetarako Gobernu hitzarmena sinatu zuten atzo, hilak 28. Lortutako akordio hau dela-eta, datozen lau urteetan Gobernu Batzordea hiru alderdiek osatuko dute eta denon artean eramango dute Udalaren gestioa, Guillermo Garate alkatea buru dela. Hitzarmen honen sinaketak, zera dakar: EH alderdia Elgoibarko Udala-

ren agintean sartzea, urtetan gobernatu kanpo egon eta gero, EAJ-k aurreko legegintzaldietan osatu zituen paktuetan ez zuelako tokirik izan.

Hiru alderdi abertzaleek adostutako akordio hau, ordea, ez da Udalaren gestiora mugatzen. Izan ere, Lizarra Garazi akordioan, edo Udalbiltzaren proiektuan hiru alderdiek herri mailan hasitako elkarlanari bultzada bat eman nahi zaio hitzarmen honekin. Euskal Herri mailako testuinguruan

kokatzen da akordio hau. Lizarra Garazi edo Udalbiltza bezalako akordioak egonik Euskal Herri mailan, hiru alderdi abertzaleek Elgoibar mailan, herrian bertan, ezin zutela banatuta egon erabaki zuten eta elkarlanari ekin zioten. Horrela, elkarrizketak hasi zituzten uztailean. Ondoren, 'in-pass' batean sartu ziren, baina irailaren bukaeran hitz egiteari berrekin zioten eta azkenik, sinatu duten akordio hau iritsi da.

## BATZORDE BAKOITZAREN HELBURUAK

Gobernu hitzarmen honen sinaketak, aipatu bezala, Udalaren gestioa EAJ, EA eta EH alderdien esku izango dela esan nahi du eta honen ondorioz, Udal batzordeak hiru alderdien artean banatu dituzte, bakoitzak hauteskundeetan eskuratutako emaitzaren arabera, Jada batzorde guztiak osatu dira eta izendatu da bakoitzean nor izango den buru. Guk, denekin saiatu arren, sei batzordetako presidenteren erantzuna jaso dugu, bere batzordearen helburuak zeintzuk diren ezagutzeko. Maribi Agirregomezkorta, Hazienda batzordetako presidentearen erantzunik ez dugu jaso.

### HIRIGINTZA BATZORDEA:

Presidentea:

Jose Mari Oruesagasti (EAJ)

II Urruzunoko etxebizitzaren eraikuntza.

II Karakol zubia eraberritzeko obrak.

II Depuradora eta kolektorea martxan jartzea Deba ibaian.

II Albitxuriko industrialdearen eraikuntza.

Rotondak egiteko proiektuak.

### BARNE BATZORDEA

Presidentea:

Bittori Goenaga (EH)

II Udaleko langileekin harremanak sendotzea.

II 35 orduko lan astea garatu. Ahalik eta ordu estra gutxien sartzeko proposamena.

II Lan arriskuen prebentzioa martxan jartzea.

Langile batzordeko ordezkariak Bame batzordearen partaide izateko thalmena edukitzea.

II Kontratazio benien jarraipena eta gardentasun osoa.

### KULTURA BATZORDEA

Presidentea:

Ana Santolaya (EAJ)

II Herriko kultur eskaintza zabaltzea eskolentara.

II Etnologia erakusketa iraunkorra.

III Aita Agirre Plazako etxea birmoldatzea. Bertan, kultur talde eta ikasleei lekua egiteko.

II Kultur Etxearen aukerak aprobetxatzea.

II Ikuskizun eszenikoak (antzerkia, dantza...) sustatzea, hilero programazio iraunkorra mantenduz eta haurrentzako ikuskizunak bultzatuz.

II Kultur elkarteei dirulaguntzak ematea eta lokalak uztea eta aldi berean, kultur programazioan parte hartzeko aukerak eskaintzea.

II Herriko Antzokiko programazioa prestatzea eta berau lantzea.

II Musika Kontserbatorioa bukatu eta prestatzea.

II Urteroko kultur programazioa: kultur taldeekin elkarlanean, jai egunetarako eta opor garaietarako programazioa prestatzea.

### EUSKARA BATZORDEA:

Presidentea:

Asier Zertgotita (EH)

II Herriko elkarte eta taldeekin orain arteko elkarlana mantendu eta ahal bada, sakontzea.

II Batzorde ireki bat egitea, herritarrei zabaldua.

Udala eta herritarren arteko harremanak euskaraz izatea bultzatzea.

### ONGIZATE BATZORDEA:

Presidentea:

Mari Tere Iraegi (EAJ)

II Orain arte egindako lanari segida ematea.

II Eguneko Zentroan sartu nahi dutenen eskakizunak tramitatzea.

II Zaharren Egoitzarako diru laguntzak bideratzea.

III Pobreziaren aurkako dirulaguntzak banatzea.

II Droga menpekotasunaren prebentziorako plangintzak bultzatzea.

II Kanposantuen gestioa arduratzea.

### ERAKUNDE AUTONOMOAK:

San Lazaro egoitza, Kirol Patronatua eta Musika Fundazio.

Presidentea.:

Ignacio Mugerza (EA)

San Lazaro egoitza:

II Zerbitzua profesionalizatzea, ezinbesteko kalitateko zerbitzu bat eskaintzeko.

Inbertsioak egin, dauden arazoak konpondu eta modernitate Egoitzara eramateko.

Kirol Patronatua:

II Gazteen artean kirol zaletasuna zabaltzea.

Kirol eskaintza mantentzea.

Kirol aretoen mantenimendu plan bat egitea.

Musika Fintdazioa:

II Gazteen artean musika zaletasuna zabaltzea.

II Musikaren inguru mugitzen diren taldeen arteko harremanak sendotzea.

II Musika eskaintzak, behar dituen egoitza egokiak behingoz edukitzea.



# H

ilabete honetako argazkia Jose Luis Zulaikak utzitakoa da. Berak esan digunez, erretratua urtero Santa Ana jaietan egiten zen enõmeriakoada. Erretratua 1970. urte inguruan ateratakoa da Santa Anako ermitan. Bertan Mendaroko neska gazte kuadrila bat ageri zaigu.

Goian, ezkerretik eskubira: **Maria Gloria Larrañaga, Maria Rosa Urain, Begoña Oliden** eta **Txaro Eizagirre**.

Behean, ezkerretik hasita: **Bene Larrañaga** eta **Maria Asuncion Garate**.



## ODOL-EMAILEAK

# Biz emaleak

*Azaroaren 26an odol atera berri Mendaron. Data eta gertaer hori aitzakia hartuta, gure herrian od ematearen gorabeherak nolakoak dir ezagutu nahi izan dugu. Hasiera mendarotarrek Elgoibarrera joan beha izaten bazuten ere, badira jada urte batz Mendaron bertan egiten direla od ateratzeak. Lehenengo odol emaleek monjen kapilan egiten zuten donazioa baina gaur egunean, ikastola berrir joaten dir*



*Gattr egun ikastola berrian egiten dira odol ateratzeak. Urtenn hint aldiz ateratzen dute odola Mendaron.*

**H**asieran, Mendaroko herria sortu baino lehen, mendarotar batzuek Elgoibarrera joaten ziren odola ematera. Elgoibarrera joaten ziren herritar hauek Mendaron odol emaleen taldea osatzea zuten helburu, baina udalerria ez zenez ezin izan zuten helburu hau gauzatu. 1.983.urtean Mendarok, herri bilakatu eta Udala izatea lortu zuenean osatu zen odol emaleen taldea. Honela lehen ateraldia 1.984.urteko maiatzaren 24an izan zen eta bertan 34 bat lagunek eman zuten odola. Ordutik hona delegatua den Gregorio Vives-ek lehenengo bilera Bergaran izan zuen otsailean. Jendea odola ematera joan zedin, ahoz zabaltu behar izan zuten odol emaleek mezua. Odola eman ezin dutenek, bazkide laguntzaileak ("Socios protectores") deituek, kuota bat ordaintzeko au-

kera dute, kuota hauek bakoitzaren esku daude, bakoitzak nahi duena ematen du.

Eboluzioari buruz, esan behar urtetik urtera gehitzen joan dela odol emaleen kopurua, nahiz eta orain egoera pixka bat geldotuta egon. Hala ere, gaur egun gazte jende asko sartzen ari da. Lehen urtean bi aldiz egiten zen ateraldia eta orain osterara, hiru aldiz egiten da. Lehen odol ateraldiak monjen kapilan egiten ziren eta egun, berri, ikastola berrian egiten dira. Pertsona bakoitzari 400 gr. odol ateratzen zaizkio. Baina, etorkizunean dagoen arazorik handiena diruarena izango da. Pertsona bakoitzari odola ateratzeko 500 pta. gastatzen dira odol emate bakoitzeko. Gauden mendean ez al zaizue lotsagarria iruditzen diru falta arazoak egotea, odolak bizitza bat salbatu dezakeenean?



# Odol emaileckiR hizketan



**JULII** ARANISTAIN

**WOITZ** Horrillo

## ■ NOIZ HASI ZINEN ODOL-EMAILE IZATEN?

1.985ean hasi nintzan odola ematen, orain dela 14 urte.

## • ZERK BULTZATU ZINTUEN ODOL EMAILE IZATERA?

Bultzatu inork ere ez, pentsatu nuen oso ona zela jendeak behar duanien jende hauei laguntzia.

## 1.1 ZENBAT ODOL EMANALDI DITUZU?

Odol emaile nauan 14 urtietan 26 emanaldi dauzkat.

## ■ ZER SENTITU ZENUEN LEHENENGO ALDIZ ODOLA ATERA ETA GERO?

Ezer ere ez, ondo sentitu nintzan, pentsatzen nuelako gauza on bat ari nintzela egiten.

## 11 NOLA IKUSTEN DUZU BESTE ASKOK ODOLIK EZ EMATEA?

Hori bakoitzak pentsatu behar du, baina nere ustez odola ematia erabaki ona da besteei laguntzeko.

## E ZENBAT ODOL ATERATZEN DUTE?

400 zm odol ateratzen diote pertsona bakoitzari.

## ■ GOGORREGIA EGITEN AL ZAIZU ODOLA ATERATZEA?

Ez, ez zait batere gogorra egiten eta oso ondo zaintzen gaituzte; odola eman eta gero, jana egoten da eta elkarrekin hizketan ondo pasatzen dugu.

## ■ ZERK BULTZATU ZINTUEN ODOLA EMATERA?

Nire aitak eta amak betidanik eman izan dute odola orain dela urtebete arte. Eta nik 18 urte bete nituen aste berean odol emalleen eguna zela enteratu nintzan. Lagun bati komentatu nion eta bere laguntzaz odola ematera ausartu nintzen. Beraz beste baten bizitza salbatu nezakeela pentsatuz joan nintzen.

## • ZER SENTITZEN DA 400 gr ODOL KENDU ONDOREN?

Neke handia eta batez ere odola kendu dizuen besoan ahulezia eta pisua. Baina egin duzuna eta gero harro sentitzen zara, batez ere odolak ez duelako preziorik eta bizitzak salba daitezkeelako zuk emandako odolari esker.

## • ZE INPRESIO EMAN ZIZUN ODOLA EMATEKO GELAK?

Sartu nintzenean oso leku sinplea iruditu zitzaidan, baina aldi berean laguntza morala ikusita oso giro atsegina dagoela iruditu zitzaidan.

## ■ ZER ADINETAKO JENDEA IKUSI ZENUEN?

Adin guztietakoak. Hasi 18 urtetik eta 60 bat urterartekoak, nahiz eta gehien bat zaharrak izan. Ez zegoen gazte-jende asko, ni nintzen gazteena.

## ■ ZER ESANGO ZENIOKE GAZTE JENDEARI ODOLA EMATEN AUSARTU DADIN?

Lehenengoz eta behin ni bezala 18 urte bete eta gero esperientzia berri hau burutzeran animatuko nituzke, barruan daukagun kuriositatea asetzeko bada ere. Beldurra dutenei berriz, ez dela beste munduko gauza bat esango nieke, behin orratza sartu eta gero itxoitea besterik ez dela. Azkenik, orain zu egiten zaudena biharko egunean beste batek zuregatik egin dezakeela aipatuko nuke. Eta gainera odola eman eta gero ondo zaintzen zaituzte.

## Diru banaketa talde politiko eta zinegotzien artean

Eudelen gomendioak jarraituz, Alkateak Udaletxean dauden talde politikoak finantzatzea proposatzen du. Talde politikoek: Hilean 10.000 pta.ko kuota finkoa gehi 3.000 pta. zinegotziko. Beraz, hauek dira emaitzak:

EAJ/PNV (5 zinegotzi) .....	25.000 pta./hileko
EH (2 zinegotzi) .....	16.000 pta./hileko
EA (zinegotzi 1) .....	13.000 pta./hileko
MT1 (zinegotzi 1) .....	13.000 pta./hileko

Zinegotziek: Alkatearen proposamenez, zinegotziek bilertara joateagatik ondorengo diru kopuruak kobratuko dituzte:

- Batzordeetako presidentek: 8.000 ptalberako, Hirigintzako batzordeak izan ezik, honek 15.000 pta. kobratuko baititu.
- Bokalak: 3.000 pta. bilerako.
- Udal ordezkariek beste Erakundeetan: 5.000 pta./bilerako.
- Alkateak ez du ezer kobratuko bileretara joateagatik, dedikazio eskusiboa duelako.

## Lanpostuak erdimailako teknikariak errenta kanpainarako

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuak deialdi irekia atera du. Lanpostuak eskuratzeko baldintzak honako hauek dira:

- 18 urtetik 55 urte bitartean edukitzea.
- Ingeniari Teknikoa, Unibertsitate Diplomatua, Arkitekto Teknikoa, LH 3 edo pareko titulua edukitzea.
- Plazari dagozkion lanetan behar bezala aritzea eragotziko lukeen gaixotasunik edo eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.
- 3. Hizkuntz eskakizuna.

Eskaerak Mendaroko Udaletxeko erregistroan aurkeztu daitezke, azaroaren 8a baino lehen.

## ❖ Peoi lanpostua "ur zerbitzuak" enpresarako

Honako baldintzak bete beharko ditu:

- 18 urte beteta izatea.
- Iturgintza ezagupenak.
- Euskara mintzatua eta idatzia.
- B1 gida baimena.

Eskaerak UR ZERBITZUAK. Hart. Gorane, Kondeko Aldapa 5, 3 Esk.20400 TOLOSA helbidean aurkeztu behar dira.


## Gaztain Erre festa

Ohitura zaharrak galdu ez daitezken, eta inguruko zenbait herritan egiten duten moduan, Mendaroko Plataforma Aktiboak, Udalaren laguntzarekin, Gaztain Erre festa antolatuko du azaroaren 20rako, ondorengo programarekin:

- Baba gorri lehiaketa.
- Bazkari Herrikoia frontoian. Menua: baba gorriak (lehiaketan egindakoak), gazta eta menbrilloa, intxaurrek, gaztain erreak, edaria, ogia eta kafea. Bazkarian bertso festa egingo da.
- Ondoren, erromeria *Ostolaza eta Andonegi* trikitilariekin.

## Karegintza erakisketa

Joan den astean Etxebarriko Txerkaratz kultur taldeak prestatutako "karegintza" Erakusketa izan gennen ikusgai Kultur Etxean. Bertan, karea egiteko prozesua erakusten zen panelak eta hideoen bitartez. Jende gehiegi agertu ez bazen ere, gerturatu zirenek interesgarritzat jo zuten, Ikastolako ikasle eta irakasleek, batez ere. Ekintzari amaiera emateko, ibilaldi hat egin zen



Mendaron dauden herritutako karobiak ikusiz. Guztira, hat lagun bildu Ekintza hau Udala eta Arno Guraso Elkartearen artean antolatu zuten.

## Garbiketa eguna



Bihar larunhata, urriak 30, goizeko 9:00etan hasita, herriko hainbat tokien garbiketari ekingo zaio auzolanean. Edozeinek parte har dezake, eta hauek dira garbituko diren guzuek: Azpilgoetako eliz ingurua, Santa Kruzeko parkea, Industrialdea. Plaza auzoa eta Intxusal erreka, Arana-Errekako hidea eta Ospitalearen atzekaldea. Golz erdian, Bustina-Iden. 1 letakoa emango zaie parte hartzaileei.

Ekintza hau Mendaroko Plataforma aktiboa, in-leike elkarrekin, Arno Guraso Elkarte eta Udalaren elkarlanari esker burutuko da.



*Pasa den urriaren 25ean Gernikako Estatutoak 20 urte bete zituen. Batzuek ospatzearen alde azaldu dira, abertzaleak berriz, ez dute ospakizunetarako inoizko ikusten. Gu ez gara eztabaida horretan sartuko. Aitzitik, 20 urte atzera egitea pentsatu dugu orduko egoera soziopolitikoa nolakoa zen gogoratzeko. Horretarako Garai hartan alkatea zen Luis Arrieta-rengana jo dugu. Ea berak laguntzen digun 20 urte atzera bidaiatzeko.*

# LUIS ARRIETA

## "Estatutuak ilusiva bueltau imun baina ez da betetzeko borondaterik ogor

**- Nola gogoratzen duzu 1979. urteko egoera politikoa?**

Itzaropena hitzak definitzen du hobekixen duela 20 urteko egoeria. Diktadura garai luze batetik irten ostian, debekaturik egon zian eskubide guztiak berreskuratzeko aukeria ikusten zaban jendiak, ilusio handixa zakagun danok. Askoren kezkarik handixena aspaldi lapurtu ziguten altxor bat berreskuratzia zan, norbere burua gobernatzeko eskubidea, alegixa.

**—Estatutua onartu zeneko unea gogoan al duzu?**

- Aspaldiko kontuak dira, baina lehenago aipatu dudana altxor hori berreskuratzeko ilusiva nakan, eta benetako poza sentitu nabana.

**—Orduan ere aldekuak eta kontrakuak izan zituen**

**Estatutuak. Gogoan al duzu zein izan zen elgoibartarrron jarrera?**

- Aldekuak eta kontrakuak beti egon dia, baina ez naiz elgoibartarren jarreriaz gogoratzen, erdi eta erdi izango zala uste dot. Egixa esan, asunto politikueta beste batzuk arduratzen zian. Ni ez nitzan politiko moduan sartu udalian, enpresa gizon moduan baizik. Nahikua lan zakagun udalan gestiva aurrera ateratziakin, lan asko zauan itxeko eta baliabide

**—Estatutua onartu zeneko unean zenituzten ilusioak denborekin gauzatu al dira?**

- Ez. Ilusio asko bidian geldiu dia. Udalian in nitxun lau urtietan Estatutuan bentajak ez zian ixa igarri ere in. Izan ere, Eusko Jaurlaritzan sortu zanian, hutsetik hasi bihar izan zaban. Hori dala-

eta, denbora piskat pasau zan instituziuen makinarixa martxan jartzen eta gauza guztixak antolatzen. Lehenengo urtietan aitzaki hori zauan, baina ondorengo urtietan, Estatutuan onartuta zaozen transferentzia eta beste gauza asko tantaka bakarrik eman dizkiue. Tamalgarriena, 20 urte geruao oindiokan transferentzia batzuk itxeko daozela da. Sekula ez da borondaterik egon Estatutua betetzeko. Hauteskundeetan politikuek errepikau daban kontua izan da transferentzia eta Estatutuarena, baina inoiz ez dabe betetzeko asmorik erakutsi.

**—Kontaguzuz honako arlo hauetan duela 20 urte Elgoibarren bizi genuen egoera:**

**Abertzaletasuna:** Diktadore baten ezkutuan bizi ostian, sentimentu indartsua zan. Kopuruz abertzale gehixo eongo dia oin, baina bizitasun gehixokin bizi zan abertzaletasuna lehen.

**Euskara:** Lehengo eta oingo egoerek kolorerik ere ez dauke, oin asko hobetu da.

**Irakaskuntza:** Nahiko berde zauan. Goragoko instituzioak oraindik antoia-kuntza fasean zaoenez, ba-koitzak ahal zabana itxen zaban bere kontura.


**Lan arloa:** Lana, egon bazauan. Lanan asuntua zikloka izaten da.

**—20 urte atzera egiteko aukera izango bazenu. Estatutuari baietz esango al zenioke?**

- Dudarik gabe, bai. Dana edo batere ez ez da politika ona. Horregatik, hasierako ilusio guztiak bete ez arren, gauza asko lortu dia.

### EESTEK ESANA

"Garai zailak bizi izan zituen alkatetzan, baina ejenplutzat hartzeko alkate zuzena eta justua izan zen". MARI EZENARRO, laguna eta zinegotzi ohia.





# Jose Arostegi Alzpurua (1921-1988)



- 1921eko maiatzaren 22an jaio zen San Lorentzo bailarako *Antxola erdi* baserrian. Him anai-arreba izan ziren, bera bigarrena. Gaztetako ikasketak San Lorentzoko eskolan egin zituen.
- Sasoi hartan, makina bat jolas egindakoa da Jose kuadrilako lagunekin. Pelotazale amorratua, kaminero eta San Lorentzoko frontoietan ordu mordoia pasa zituen pilotan jokatzeko eta partiduak antolatzen auzoko beste gazteekin. Halere, fin aritu zen baserriko lanetan ere, familiakoei gustura lagunduz.
- Gazte alai eta irrifartsua izan zen. Irteerak egitea eta erromerietara joatea oso gustuko zuen, batez ere, familiakoekin Arratera eta San Antoniora. Auzoko erromeria batean, bailara bereko Rosario Sodupe (Gelatxo soinu-jole ospetsuaren alaba) neska Iirain eta jatorra ezagutu zuen. Agarre baseniko neska honetaz lehenengo egunetik maiteminduta, makina bat parranda eta dantza egin zituzten elkarrekin eta azkenik, Elgoibarko parrokiaren ezkondu ziren. Bikote honek alaba bakarra izan zuen, M. Jesus Arostegi, alegia.
- Baserrian jarraitu zuen lanean, baina piska bat geroago *"Alkorta y Cia"* lantegian hasi zen lanean. Ondoren, *"Estarta y Ecenarro"* enpresan egin zuen lan urte luzez, gaixotu zen arte. Gaixotasuna zela-eta, denbora baino lehen hartu zuen jubilazioa. Baserriko animaliak mantentzen eta esnea jeisten aritu zen ondorengo urteetan.
- Lagunekin euskal kantak abestea eta berriketaldiak izatea atsegin zuen. Baita hileroko ferira etortzea ere, ez zuen sekula hutsik egiten.
- Pertsona ona izan zen Joxe. Ingurukoak pozik egotea besterik ez zitzaion inporta. Oso txistosoa eta umotsua zen, makina bat pertsonari adarra jotakoa.
- Famili girokoa eta sinismen eta borondate handikoa zen, fede handia zion San Lorentzori. Euskal giroko gauzak atsegin zituen; bertsoak, kantak, kirolak etab.
- 1988ko ekainaren 8an hil zen 67 urte besterik ez zituela.

Juanito Gomstiza



o a  
Aranburu elgoibartarrak enpresaritzak ikasketak bukatu, eta beka bati esker, urtebetez atzerrian lan egiteko aukera izan

## Alora

ANCW1.1314r14

zuen, "herrialdea ez duzu zuk aukeratzen, edozein izan daiteke, eta niri Mexiko tokatu zitzaidan". Esperientzia hura asko gustatu zitzaion, eta 1994. urtetik Mexikoko hiriburuan bizi da, senarra ere mexikarra du. Mexiko D.F nolakoa den deskribatzea ez dela lan erraza esan digu, "20 milioi biztanle ditu, eta uneoro jende asko, ikusten da batetik bestera. Trafikoa eta kontaminazioa ikaragarriak dira. Distantziak, berriz, oso luzeak dira (bada kale bat 45 km luze dituen). Hala ere kolore askoko hiria da, txoko polit asko ditu eta jendeak normalean tratu ona ematen du. Mexikar musika eta folklorea ere asko gustatzen zaizkit. Baita bertako jantzia ere, oso pikantea izan arren". Hala ere, atzerrian egonda gauza askotaz gogoratzen dela aipatu digu, lanaria, hizkuntza (Euskara), ohiturak, paisaia, bizitzeko modua..., baina nire kasuan gehien faltan botatzen dudana nire fanaila da, gurasoak eta nire bi ahizpak". Mexiko kontraste askoko herrialdea dela esan digu, "jende aberatsa bizi da bemen, baina aldi berean 45 milioi pobre, desberdintasun soziala handia da".

4.=

VIAJES BIDAIAK  
**31L3190 EXPVRESS**  
bidaia agentziak  
babestutako atala

Foruen enparantza, 3  
Tel: 943 74 39 12

4.11.19  
(5) :40  
**KAFETEGIA**  
943 74 42 65

**Cordon, Vilarchao, c.b.**  
**IDEKORAZICIA**  
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASO1A, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKA1AK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.  
San Roke, 7 behe. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

JOSE (Txema)  
Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoak, etab. jartzen dugu.  
San Bartolome, 28-1 ezk  
Tel: 943 74 12 55  
Mobila: 629 44 23 14




ste hontako erretratu zaharra herritar batek laga digu. Argazkia 1963. urte inguruan ateratakoa da. Urteroko ohiturari jarraituz, hainbat herritar Arantzazura joan ziren peregrinazioan. Elgoibartarrez aparte, hainbat mendarotar ere joan ziren. Kontatzen saiatu garen arren, ez gara gai izan zenbat pertsona agertzen diren argazkian jakiteko, hori zuen esku utziko dugu. Hala ere, 4 autobusetik gora bete zituztela jakin dugu. Argazkilariak ere badu meritorik horrenbeste lagun enkuadorean sartu dituelako. Argi dagoena, leku aproposa aukeratu zuela da. Nonbait goi aldean izan beharko zuen, begiratu bestela norantz begiratzen duten argazkikoek, badirudi argazkiaz baino gehiago, argazkilariaren segurtasunaz kezkatuta daudela.

Argazkia utzi digun herritarrak azaldu digunez, "egun ederra pasau gendun, goizian mezia entzun eta gero edarki bazkaldu".



.Yo

## Talholan mun barrutik ezaull dot eta ez jata gehixei gustar



### Manu Ibarluzea

- **Adina:** 18 urte.
- **Zer ikasten ari zara?**  
Injinerutza.
- **Gustuko beste kirolik?** Esku pilota.
- **Zer postutan jokatzen duzu?**  
Zentral postuan jokatzen dot.
- **Ligako jokalaririk gustukoena?**  
Luis Figo
- **Jokorik onena egiten duen taldea?**  
Bartzelona.

### • Eskola Kirola Kontseilua sortu da

Eskola kirola urriaren 10ean hasi zen eta maiatzaren 25an bukatuko da Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuko ikasleen partaidetzarekin, Pasa den urriaren 19an, Elgoibarko Eskola Kirolaren kontseilua pasa den urriaren 19an eratu zen. Kontseiluaren helburuak, Elgoibarko Eskola Kirola programa buitzatzea eta gestionatzea izango dira. Urteko jardueren egitarauak eta aurrekontuak onartzea eta jarduera horiek koordinatzea izango dira kontseiluaren zeregin nagusiak. Horretarako, jardueren kontrol tekniko eta jarraipena egingo du, eta sortzen diren arazoak konpontzeko ardura ere

**-Haundiarekin debutatu berri duzu, zer moduz?** Egixa esan nahiko debut kaxkarran in naban. Gol bat sartu arren, 4 eta 1 galdu zenun. Hala ere, ez zan nere debuta izan, oin dala bi urte partidu bat jokatuta naban Haundixakin Leonen. Ordukua txarraua izan zan, arbitruak txartel gorrixa erakutsi zian-eta.

**-Ez zara unerik onenean heldu?** Hala da bai, jendia ilusivakin ikusten dot, baina emaitza onak ez dia heltzen. Gure asmua zaletuei ilusiva bueltatzia da, kalitatia badao eta azkenerako goixan bukatzia espero dot.

**-Athletic-en jokatzeari zure borondatez utzi diozu, zergatik?** Batez ere ikasketak direla-eta. Entrenamentuak, ostiralean izan ezik, beste egun guztixetan eukitzen genduzen. Igandian partidua euki ezker, baitxa zapatuan ere. Hori dala eta, oso zaila da ikasketak eta futbola bateratzia. Probarik argixena Lezaman bertan dao, jokalaririk gehixenak oso ikasle txarrak dia eta futbolera buru belarri dedikatzen dia.

**-Hala ere, gazte asko zuk duzun aukera izatearren edozer egiteko prest egongo lirateke, ezta?** - Bai, ulertzen dot hori ere, baina futbolarik mundua barrutik ezautzeko aukeria euki dot eta ez jata gehixegi gustau. Daukagun edaderako presio gehixegi jasaten dou.

**-Zenbat denbora egin duzu Athletic-**

**en?** - Urte oso bat eta aurtengo denbomld xan hasiera.

**-Zein kategoriatan jokatzen zenuen?** Jubeniletako ohorezko mallan, dauan mailarik altuenian.

**-Kolore berdinak defenditzen jarraituko duzu, baina beste gauza asko aldatuko ziren?** - Bai. Jokoaren eritmuia adibidez. Jubeniletako jokalarixek kalitate gehixo dake eta baloia hobeto kontrolatzen dabe. Jokua gelduaua izaten da. Hirugarren berriz, korrika eta borroka gehixo itxen da. Nik nahixao dot jokatze moduhau, baina jubeniletakua politixaua da ikusteko. Lezaman garrantzi mordua ematen diue futbolarik ondo jokatzen ikastiarri eta diziplinari. Bestalde, Athletic moduko taldietan jokalarixen artian diferentzia handixak eoten dia. Batzuri oso txikitatik antzematen jakue goraino helduko diala, eta tratu berezixa jasotzen dabe. Beste aldaketa bat oin henitzu ren aurrian jokatze aukeria izango dotela da. Oin lasaixao jokauko dot, eta ez lehen zakagun presivakin. Partidu inportantietara 2.000 pertsonatik gora ere jun izan dia Lezamara.

**-Errealean ala Athletic-en da zailagoa jokatzea?** - Momentu hontan Athletic-en, bai beheko kategorixetan eta baitxa talde nagusian ere. Izan ere, Natarmko, Arabako, Gipuzkoako eta haita Enioxako jokalarixak hartzen ditxu Atletikek eta hori lehia handixa da.

### Jose Mari Arakistainek ordezkatuko du Txomin Arkotxa Haundiko entrenatzaile postuan



Pasa den urriaren 25ean C. D Elaoibarrek eta Txomin Arkotxa entrenatzaileak elkarrekin adostuta hartutako erabakiaren arabera, Txomin Arkotxa ondarrutarrik taldeko entrenatzailea izateari utziko dio urte bete pasatxo taldean

egin ondoren. Haundiko entrenatzaile berria, Jose Mari Arakistain elgoibartarra izango da. Dagoeneko hasi da taldea entrenatzen eta So dupe taldearen aurkako partidua prestatzen.

Areto tutbolekol 999/2000 denboraldia

## Autonomiko eta 11. mailako areto latbalieko laideak

*Pasa den urtean 10. urteurrena ospatu ostean, Elgoibarko areto futboleko taldeari kostako zaio iazko denboraldiko lorpenak hobetzea edo, gutxienez, berdintzea. Izan ere, autonomi mailako talde nagusiak, Espainiako Taldeen Arteko Txapelketan bigarren postua esku-*

*ratu zuen iaz. Bestalde, 1. mailako taldeak maila galdu bazuen ere, iazko maila berean arituko da aurten. Jose Ramon Iriarte presidenteak esan digunez, "oso goian jarri ditugu aurtengo helburuak, baina lan egiteko gogorik ez zaigu falta.*

### Autonomikoa



**ZUR TA LUR ELGOIBAR F.S AUTONOMIKOA.** Zutik, ezkerretik hasita: **Rafa Alberdi, Ignacio Alberdi, Oscar Diez, Iban Larrañaga eta Jon Pozuelo** entrenatzailea. Makurtuta: **Antonio Garcia, Igor Garrido eta Enrike Rodriguez.** Argazkian falta direnak: **Hector Garrido, Mixel Gil, Agustin Valenciaga, Gorka Azpilikueta eta J. Luis Bilbao.**

### 1. maila



**ZUR TA LUR ELGOIBAR F. S/1. MAILA.** Zutik, ezkerretik hasita: **Roberto Mejuto, Pedro Galarraga, Oscar Malvar eta David Mekolalde.** Makurtuta: **Antonio Cejuela, Gorka Merino, Santi Fernandez eta Joseba Arrillaga.** Argazkian falta dira: **Gorka Sastre, Mikel Leon, Francisco Boo, Roberto Cordon, David Garrido, Andres Valenciaga eta Santi Fernandez.**

## EMAITZAK

### Futbola

Haundi 1- Santurtzi **4 (3. maila)**  
Elgoibar 1 - Soraluze 0 (1. erreg.)  
Elgoibar **8-** Eibartarrak B **0 (Kad.)**  
Elgoibar El - Antiguoko 2 (**Jub. E.L.**)  
Eibar 0 - Elgoibar 1 (**0. inf.**)  
Urki 1- Elgoibar 17 (**Neskak**)  
Pedrusko 1- Amaika-Bat **4** (1. erreg.)

### Areto futbola

**Eskualdeko I. Areto Futhof Txapelkela**  
De La Buena 11 - Eusko Label **4**  
Cherokee **3-** La Tarantela **8**  
Ciulebrilla 1- La Kofina 7  
Ef Resto 1- S.A **17**  
Ganbara 1- Guria Electricidad **4**  
Brujeria **2-** Gure Toki 9  
Zordunak 1 - Garmas **3**  
**Peñaskos 6-** Esteaua De Solares **6**  
Kunta Kinte 1- Elur S. A **4**

### Eskubaloia

Unceta Elg. **22** - Oiarso **8 (Jub. nes.)**  
Pagoaga Elg.16 - Oiarso **8 (Kad. nes.)**  
**1MS Efg. 17** - Urdatbai **19 (Sen. nes.)**  
Gaur Elgoibar 11 - Urola **24 (Kad. mut.)**  
Aloña Mendi 17 - Tecno. Elg. **24 (Kad. mut.)**  
Bergara11 - Pneumax Elg. **22 (Jub. mut.)**  
Arrasate Nmen 13 - IMH Elg. **25 (Seniar mut.)**

### Idarraga Kafeak 3. saria

**HAUNDIko** jakafari erregularrena 99/09  
JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Castro , .....	25
2- Zulaika.....	15
3- Polo.....	14
4- Alberdi .....	11
5- Aranberri.....	9
6- Bravo.....	7
7- G. Leonardo .....	<b>5</b>
8- Txasio .....	4
9- Caro .....	4
10- Manolo Ramos .....	4
11- Manolo Ramos .....	4
12- Guarrochena .....	4
13- Ibarfuzea .....	4
14- Alcorta.....	3
15- Bague .....	3
16- Fernandez .....	2
17- Loren.....	2


## A GEN D A.

### Eskubaloia, Kirolegian

**Ostirala, 29**  
**22:10** Zur Ta Lur-Jostaldi I Grafak (1. maila)  
**23:10** Zur Ta Lur - Txanela (**Auilino.**)  
**Larunbata, 30**  
**16:00** Tecno. Elg. - Almen (Kad. mut.)  
**17:30** IMH Elg. - Hernani (Seniar mut.)

### Futbola, Mintxetan

**Larunbata, 30**  
**17:00** Haundi - Sodupe (**3. maila**)  
**18:45** Pedrusko - Kilimon (**1. erreg.**)  
**Igandea, 31**  
**12:00** Elgoibar - Zarautz (**0. inf.**)  
**16:30** Elgoibar - Amaika-Bat (**Neskak**)



Itzulper. =akitu/fw

## Bidaia zirrargarria

Uda sasoia aspaldi samar bukatu bazen ere, bidaia liburu baten aipamena egingo dut. Esaterako, oraingo honetan tarte honetara datorren "Ilunbeen bihotzean" hau, 1899an Joseph Conrad-ek idatzia.

Josef Teodor Konrad Korzeniowski, (1857-1924) gerora izena aldatu eta Joseph Conrad bezala ezaguna, bidaiari amorratua izan zen. Ondoren itsasoan bizi izandako esperientziak bere liburuetan islatu zituen, "Heart of darkness" honetan bezalaxe. Liburu bidaia kronika bat da, egileak Afrikan izandako bizipenak jasotzen ditu. Benetan bidaia zirrargarria da. Hasieratik intrigazko giro bat nagusitzen da, orrialdez orrialde irakurlea harrapatu eta barneratu egiten duena.

Ez da ahaztu behar Francis Ford Coppola zine zuzendari handia liburu honetan oinarritu zela bere "Apocalypse Now" filme bikaina egiteko. Vietnamgo gatazkan kokatu bazuen ere, neurri batean, liburuak daukan giro hori jaso zuen bere pelikulan estatubatuarrek.

Jon Eugi

## Grunloalo Foer/sollE1191 711apejkolagen solo b9s/ Ellgiolallgran ozargalga 5san Azpeitia-Landeta eta Toloxa taldeen arteko iehia izango da

*Elgoibarrek Gipuzkoako bertsolari txapelketaren 2. kanporaketa saioetako bat hartuko du. Azaroaren 5ean jokatu, atuko da Heniko Antzokituz Azpeitia-Landeta eta Toloxaren arteko bertso norgeihagoka, bi taldeek lehendabiziko jasean aurrera egitea lortu otean.*

urten Gipuzkoako bertso txapelketa aldeka antolatutakoa da eta beraz, ez Ati buruz buruko neurketarik jokatuko. Elgoibarren, Azpeitiko taldeetako bat, Azpeitia-Landeta izeneko entzun eta ikusteko aukera izango da. Taldearen barnean Sebastian Lizaso, Aritz Etxeberría "Ministro", Andoni Larrañaga eta Leire Ostolaza dira bertsolariak. Beñat Lizaso gaijartzailea izango da eta Fernando Beloki, berriz, epailea.

Toloxa izeneko taldearen aldetik, Alfontso Jimenezek, Ibon. Karrerak, Maider Otxandorenak, Eneritz Otamendik eta Bixente Gorostidik abestuko dituzte bertsoak. Xabier Artola gaijartzailea, Eleuterio Itnaz "Batxu" epailea eta Anjel Mari Peñagarikano arduraduna izango dira.

Elgoibarko saioaz aparte honako beste herri hauetan izango dira Txapelketako bigarren faseko bertso saioak: Urretxu, Zumaia, Oñati, Erreterria eta Beasain. Urretxu eta Zumaian bertso saioak egon eta gero, gaur ostirala, hilak 29, Oñatin izango dena alde batera lagata, hiru jaialdi geldituko dira hurrengo fasera, finalerdietara, zein talde pasako den erabaki dadin,



## Duoenialonabikoteakantzzerkiemanaldia eskairfildoduElgolbarrenazaroaren7an

Ikuskizunean zirkua, txontxongiloak eta 'clown'aren umorea tartekatzen dira

*Duo en la lona* bikoteak "Munduko zirkurik txikiena" ikuskizuna eskainiko du euskaraz azaroaren 7an Heniko Antzokian. Paula Alfieri eta Andres Fresnok osatutako bikote honek, bere etnaldian, zirkua (ekilibrioak, malabareak, akrobazia, kontortsioa), txontxongiloak eta 'clown'-aren umorea tartekatzen ditu. Bi artistek emanaldi hau, orain artean, Euskal Autonomi Erkidegoko 23 ikastetxe publikotan eskaini dute, besteak beste, Gernika, Elorrio, Lekeitio, Mallabia, Markina edo Zaldibar bezalako herrietan eta orain Elgoibarrera datoz.

HOITEZ gain, txontxongilo emanaldi ga-



nantzitsuetan parte hartu dute. 1998. urtean Albacete hiriko lehenengo Kaleko Txontxongilo Topaketetara gonbidatu zizuten. Halaber, Zaragozako Pilar Amabirjinaren omenezko jaietan izan ziren, eta baita Aragoiko hiriburu bereko Ertamerikaren aldeko txontxongilo jaialdian ere.

*Duo en la lona* "Munduko zirkurik txikiena" ikuskizunean zirkuaren gorabeheretan murgilduko gaitu. Duve, arris-

kua gustuko duen gizonak eta animalia exotikoen domatzaileak, bere trebeziak erakutsiko dizkigu, edozer ganza gerta daitekeen zirku batean. Baina, oraingo honetan, bere emanaldia ezustez beterikoa izango da.

# Alaitz Zialzeta

I KAS 11. /11,

511 1:9, 1r 11

HOGEIKOA

## 1 - Merezi al du bizitzeak? Eta Elgoibarren bizitzeak?

- Bai, merezi du bizitzeak nahiz eta batzutan zailtasunak aurkitu. Hala ere, Elgoibar oso handia ez denez, bertako bizimodua nahiko lasaia da. Ni gustura nago.

## 2 - Eutanasia praktikatu al zenuke familiako batengan?

- Pertsona hori oso larri dagoela eta asko sufritzen duela ikusi ezker, bai.

3 **Hil eta gero?** - Ez dakit, ez naiz sekula hil eta.

## 4 - Lehenengo ni eta gero besteak.

Bien arteko oreka bilatu behar da. Batzutan norbere buruari egin behar zaio kasu, baina besteei kalterik egin gabe.

## 5 - Nori kontatzen dizkiozu arazoak?

Arazoak nolakoak diren arabera, lagunei edo gurasoei kontatzen dizkiet.

6 **Zein da zure bizitzako anbizioa? Eta bizioa?** Nire anbizio pozik bizitzea da. Ez daukat biziorik.

7 **Sinesten al duzu politikan? Emango al zenuke botorik?** - Politika ez zait batere interesatzen eta ez dut boturik eman inoiz.

8 - **Noiz joan zinen azkeneko manifestaldi batera?** - Ez dut gogoratzten.

9 - **Euskalduna naiz eta harro nago?** - Bai, oso harro.

10 - **Zerk galerazten dizu loa?** - Normalean ondo egiten dut lo, oso gutxitan galerazten dit zerbaitek loa.

11 **Elgoibarko Gaztetxean sartzen al zara?** - Berritu dutenetik ez naiz joan. Egia esan ez daukat joateko ohiturarik.

12 - **Gurasoek asko sufritzen al dute zurekin?** - Ez dut uste, oso txinxtoa naiz-eta.



13 **Zer da gurasoengandik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?** - Gehien, laguntzeko prest daudela beti, eta batez ere, ama oso baikorra dela. Gutxien gustatzen zaidana, berriz, gauzak zein azkar aldatzen diren ez direla konturatzen da.

14 - **Laguntzen al duzu etxeko lanetan?** - Egia esan, gutxi.

15 **Alkoholik gabe ondo pasa daiteke?** - Bai, seguru gainera. Askotan hobeto pasatzen da kontuak esaten, asko edanez eta juergan ibiliz baino.

16 - **Irakurri duzun azken burua?** - Edgar Allan Poe idazlea-

ren *Cuenws* liburua.

17 - **Sexua maitasunik gabe ala maitasuna sexurik gabe?** - Nik nahiago dut maitasuna sexurik gabe.


18 - **Birjinitatea traba ala bertutea?** - Nire ustez ez bata eta ez bestea.

19 - **Homosexual batek maite zaituela esango balizu?** Nik ez dudala gauza bere sentitzen esango nioke, baina bere laguna izateko prest nagoela.

20 - **Sinesten al duzu betirako maitasunean?** Pertsona egokia aurkitu ezker, zergatik ez?







### • Azaroak 1, Domusantu Eguna

Azaroaren lean, astelehenean, izango da Domusantu Eguna, kanposantura joan eta hiri direnak gogora ekartzeko eguna, alegia. Kanposantua goizez zein arratsaldez irekita egongo da. San Bartolome parrokiatik adierazi digutenez, hildakoen aldeko meza eta jauna agerian jarzea arratsaldeko 18:00etan izango dira parrokiari. Goizeko meza ospakizunek, berriz, igandetako ordutegia berdina izango dute, 11:30etakoak izan ezik. Elgoibarko auzoetan ere izango dira mezak. Bestalde, arimen eguneko meza ospatuko da asteartean, hilaren 2an, panokian.

### • Kontzertua eta filmea astebukaeran Gaztetxean

Gazte Asanbladak kontzertu eta filme batez osatutako egitaraua antolatu du hiru egun jai dituen astebukaera honetarako. Lehendabizi, larunbatean, Eibar Gasteiz

autopistaren aurkako jaialdia izango da eta Brigada Slam Zarauzko talde heavyak eta R.D.T.-k kontzertua eskainiko dute. Ondoren, hasiera batean iganderako iragarrita bazegoen ere, Ken Loach-en "La canción de Carla" pelikula astelehenean emango dute, igandean Abadiñon Inturnisio Eguna dela-eta.




### • Asteburuan ordua aldatu behar da

Urtero bezala, sasoi honetan erlojuetako orratzak aldatzeko unea ailegatu da. Zapatutik igandera bitartean (30tik 31era), goizaldeko 3:00ak direnean ordubete atzeratu beharko da erlojua, 2:00ak izango direlarik. Ez ahaztu aldaketa egitea!

3:00

2:00



## T X A N D A K

### FARMAZIAK

Egunez **Gauetz**

**30** Etxeberria\* Zabaleta  
(Santa Ana kalean)

**31** Etxeberria\* Zabaleta  
(Santa Ana kalean)

**1** Zabaleta Zabaleta

**2** Escal Escala

**3** Bidasolo Bidasolo

**4** Etxeberria Etxeberria  
(Santa Ana kalean)

**5** J. Fernandez J. Fernandez  
\*(eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA:** Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 943 75 16 38

**J. IGNACIO FERNANDEZ:**

Herriko enparanta 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA:** Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

**31** igandea Idarraga

**1** igandea Doña Mercedes

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

- Neska behar da tabernan lan egiteko astean zehar. tr 943 74 04 90
- Emakume euskalduna behar da emakume edadenta zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ts 943 74 24 23 (14:(Oetatik 21:(X)etara) Maria Jesus.

### + ESKAERA •

Il Etxeko lanak eta garbiketarako emakumea eskaintzen da. tr 609 52 68 69.

- Umeak zaintzeko emakumea eskaintzen da. tr 943 74 27 41
- Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. st 943 74 29 73 (goizez, Andone)

## Partikularrak

+Unibertsitari talde bat Mendaroko ikastolako haurrei eta ESOko ikasleei laguntza klaseak emateko prest dago. Prezio merkeak, talde murrizak eta arreta berezia. te 943 75 61 70 (Alaitz) t2 943 75 61 90 (Ziortza)

+Matematika, Fisika eta Kimikako klase partikularrak ematen ditut. Baita LOGSEko I. eta 2. mailak, eta Hezkuntza profesionala ere. Taide murriztuak, 4 edo 5 ikasletakoak. Esperientziaduna (Injineru industrial). tr 943 74 13 11 (Javier)

• EGA eta First Certificate tituludun Injinerutzako ikasleak LH, DBH eta LOGSEko ikasleei klase partikulamik emango lizideke. zr 943 74 39 69 (Celia)

## Salerosketak

- Bizirik dauden ahate ederrak saltzen dira. s 943 74 31 02.
- Nintendo 64 kotsola sultzen da. 2 mando eta 5 jokurekin. Egoera onean. r 943 74 46 46 (13:00etatik 14:00etara. Josul)
- Karabana eta Puch motoa saltzen ditut. a 943 74 41 41 (arratsaldetan)

### OHARRA:

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

## Bestelakoak

+ Marshall anplifikagailu bat (100W-koa), Ihafiez SG/540 kitarra eta oraindik estreinatu gabeko ahots mahai bat saltzen ditut. te 943 74 40 87

+ Mintxetatik kiroldegirako bide tartean Errealeko txandalaren txaketa galdu nuen duela pare hat aste (10 taila). tr 943 74 37 94

• Cocker Spaniel heltza oparitzen dut ezin dudalako zaindu. 9 urte ditu, oso lasaia da, maitagarria era oso ondo hezitua dago. ts 943 74 42 55

+ Zilarrezko pultsera hat aurkitu nuen duela 2 hilabete. Naikari eta 98-10-30 dauka idatzita. so 943 74 31 41 (gauzez deitu)

• Urrezko eraztuna (zigilua) galdu dut Santa Ana kale inguruan. Ir 943 74 13 21

+ 'In leike' Mendaroko aisialdi taldeak hurrengo altzariak hartuko lituzke: buzoia, armairua, perxeroa, paragueroa, apalak... Gu pasatuko ginateke materiala jasotzera. Idoia tr 943 75 61 21

• Larunbatean hilak 9, urrezko kate bat galdu nuen, "Y" bat dauka. Mesedez, oso garrantzitsua da, Norhatte aurkitzen budu, deitu 943 75 62 45 telefonora. (Yoli)

• Perht urdina daukan untz. ko eraztuna aurkitu nuen eta parrokiko sakristian utzi dut. Bertan pultsera bat eta erloju bat ere badaude.

• Merkatuan denda berritua traspasatzen da. ir 943 74 25 17

• Irailaren 26an. Aubixatik San Pedrorako bidean utne haten jensea aurkitu nuen. Udaletxera eraman dut.

\*Gazterxerako sofak edo hutakak behar dira. Butaka edo sora zahanak badituzu botatzeko, jani Gazterxekoekin kontaktuan, Eurak arduktuko dira jasotzeaz. str 943 74 35 72

• Neska takle hatek dantzak kontentporanea edo jazz estiloko dantzak erakutsiko lizkioken pensona bat behar du. o 943 74 18 06

## Garajeak

Matradun garajea saltzen da pista beltzean. a 943 74 00 89 tAstegunetan eta 21:00etatik aurrera deituz

\*Garaje itxia hartuko nuke alokairuan Anegiton'en, tr 943 74 15 16

## Etxebizitzak

• Pisu txikia eta ekonomikoa behar dut alokairuan. u. 630 21 64 22 (Jesus)

• Pisua saltzen da Santa Klaran 24 zbakia-5B. it 943 74 32 98

• Etxebizitza behar dut Elgoiharren lehen bait lehen. a 943 70 11 93 (21:00etatik aurrera deitu)

• Pisua saltzen dut Santa Ana kalean, guztiz herritua. ts 943 74 05 14 .re 626 23 75 70 (17:00etatik aurrera)

+ Pisua alokatzen da Dehan ekainerarte. tr 943 74 13 39 (Ane)

## Agurrak

• Zorionak sorgintxo. Pilarreko 6. mailakoan partez.

• Zorionak Jokin Salegiri hilaren 25ean 10 urte bete zituelako. Ion eta Eiderren partez.

• Zorionak Itsaso Lopezi unikurn 24an 10 urte bete zituelako. Ikastolako 5. mailakoan partez. Aupa Itsaso, segi horrela!

• Zorionak Anselmori urriaren 24an urteak bete zituelako. Nerearen, Leireren eta M. Cruzen partez,

• Zorionak Ekain Jimenezi urriaren 24an 11 urte bete zituelako. Txerribururen partez.

◆ Zorionak Andoniri urriaren 22an here urtehetetzea izan zelako. Ikastolako 5. mailakoan partez.

• Zorionak Jon Garateri larunbatean, hilak 30, 12 urte beteko dituelako. Familia guztiaren eta bereziki Mikelen partez.

• Zorionak elkar ondo konpontzen diren Jon Garateri eta Danel Este-bani heraien urtebetetzean. Muxu handi bat asko maite zaituztenen partez.

• Zorionak pareja! Bihar, uniak 30, 12 eta 13 urte beteko dituzuelako. Ikastolako DBH lkoen partez eta bereziki Kelly Slaterren partez.

\*Zorionak. alta uniaren 28an urteak bete zituelako. Zure alaharen partez.



• Zorionak Mireia de Castrori 18an 10 tute bete zituelako. Pilar ikasietxeko 5. inailako nesken partez.

Baita ere Maitane H.ren, Maitane D.ren, Inskunen, Sararen eta Leireren partez.

• Zorionak Enekori eta Altorreri hilaren 28an eta 23an 5 urte eta unebeie bete zituztelako. Familiaren partez.



• Zorionak Daneli hilaren 28an urtebete bete zituelako. Gurasoen eta familia osoaren partez. Zorionak-haita ere amama Blanqui eta Ion Garate zorientzen ditu.



• Zorionak Ion Etxanizi bihar, urriak 30, 2 urte egingo dituelako. Familia guztiaren partez eta bereziki anaia litakiren partez.

• Zorionak Xabier Lopezi uniaren 31an 10 urte beteko dituelako. Guraso eta Ifitgoren partez.



• Zorionak Maria Idiakezi urriaren 30ean unekak beteko dituelako. Familiaren partez.

+Zorionak Nerea Bereziartuari hilaren 26an unekak bete zituelako. Bere ama eta amama, baita osaba Jose Mari, izeba Edurne eta Nora lehengusinarenpatez,



• Super zorionak Isabel Bermejori azaroaren 2an, urteak beteko dituelako. Bere senamaren eta alaba Cristinaren eta Amaiaeren partez.

Ondo pasa eguna!

# PGRAFF

DISEINLI GRAFIKOA

110<sup>5</sup>λ

Azaroaren 2an atek irekiko dizkiogu irudiari eta publizitateari.



Santa Ana, 10

Tel.: 656 78 44 16

20870 Elgoibar

# ZEZEN-BIDE

## AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



0/0 1(;(7,r-G  
Gazte Txaffi;((iurdrin



San Frantzisko, 43-1. - Tel: 943 74 27 20 - ELGOIBAR

Ego-gain, 2 behe (sarrera S. Andres ibilbidetik). - Tel: 943 20 34 45 - EIBAR

# KULTURA



azaroak. 7, igandea  
arratsaldeko 16:30ean  
.Herri.ko Antzokian

EUSKARAZ

'ZIRKORIK TXIKIENA'

Paula Alfieri

eta

Andres Fresno

azaroak 5, ostirala  
daueko 22:00ean  
Herriko Antzokian

## 2. KANPORAKETA SAIOAK

Taldeak:

"Azpeitia - Landeta"

"Toloxa"

Prezioa: 500 pta.



Kultura